



OHAR INFORMATIBOA, HAINBAT SAILEK SUSTATUTAKO PROGRAMETAKO IKASLEEN, BEKADUNEN ETA PARTE-HARTZAILEEN ARRISKUAK ESTALTZEKO EUSKO JAURLARITZAK KONTRATATUTAKO ASEGURUEN EZAUGARRIEI BURUZKOA.

ISTRIPU-ASEGURUA ETA ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA:

Horretarako ezarritako lehiaketa publikoari jarraikiz, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 16-11-16ko Ebazpenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak bere gain hartu du Eusko Jaurlaritzak kontratatutako aseguru osagarrien kostua. Aseguru horiek hainbat programatako ikasleen, bekadunen eta parte-hartzaileen istripu- eta erantzukizun zibileko arriskuak –praktikaldian eta/edo jardunaldian– estaltzeko kontratatu ditu Jaurlaritzak.

Aseguru horien baldintza orokorrak eta partikularrak nahiz ezaugarri teknikoak eta zehaztapenak aseguru-etxean daude, dagokien polizetan, interesdunek informazioa eskatzen dutenerako; halaber, Ogasun eta Finantza Saileko Arriskuak eta Aseguruak Kudeatzeko Zerbitzuan ere eskura daitezke.

Hala ere, laburpen modura, praktika- edo jarduera-proiektuetan parte hartzen duten bekadunak, ikasleak edo parte-hartzaileak zein enpresak edo entitateak informatzeko, aseguru horien ezaugarriei buruzko zenbait ohar adieraziko dira:

ASEGURUEN IZAERA ETA TIPOLOGIA

Aipatutako bi aseguruak hauek dira:

A. ISTRIPU-ASEGURUAK.

B. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAK.

Beraz, aseguru horiek ez daude lan-estalduraren barne, ez eta prestakuntza-lankidetzako hitzarmenak ere. Hori dela eta, ez dute estaldurarik soldaten galeragatik edo lortu gabeko irabazienatik, ez loturarik batere Gizarte Segurantzaren estaldura osagarriekin.

Aseguru horiek Eusko Jaurlaritzak kontratatu izanak ez du aitortzen, ezta bermatzen ere, parte-hartzailea edo bekaduna legezko egoeran izango denik enpresan edo entitatean praktikak egin bitartean. Parte-hartzailea edo bekaduna legezko egoeran egoteak ez du zerikusirik aseguru horiekin edo kontratatzailearekin.

A) ISTRIPU-ASEGURUAK.-



Aseguru horrek bekadunak, ikasleak edo parte-hartzaileak izandako istripu baten ondorioak estaltzen ditu. Hau da, aseguru horrek kalte-ordainak bermatzen ditu BAKARRIK HONAKOETAN:

- Bekaduna, ikaslea edo parte-hartzailea hiltzea.
- Ezintasun iraunkorra (sendaezina/konponezina)

Absolutua

Maila hauetan: Osoa

Partziala (baremoaren arabera)

- Osasun-arreta (bakarrik istripuetan)

eta betiere, parte-hartzaileak, bekadunak, kolaboratzaileak eta abarrek praktikak edo administrazioarekin sinatutako akordioan jasotako jarduera egiten dituen zentroan, enpresan edo lekuan gertatutako istripu baten ondorioz, praktikaldian, edo «in itinere»

ISTRIPU-ASEGURUEN KALTE-ORDAINAK (ikus I. eranskina)

B) ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA.-

Aseguru horrek praktikaldian edo jardunaldian bekadunari, ikasleari edo parte-hartzaileari egotz dakizkiokeen ondasunei edo hirugarrenei eragindako gorputz- edo material-kalteak eta galerak dakartzaten ONDORIO EKONOMIKOAK estaltzen ditu (aurrez ezarritako mugetara arte).

Poliza horrek ez du erabat salbuesten ikasleak edo parte-hartzaileak praktikak egiten dituen enpresak izan lezakeen erantzukizuna. Ondorioz, estaldura aurrez deskribatutako eremura mugatzen da, eta istripua irakaslearen edo enpresako langileen arduragabekeriaren ondorioz gertatzen bada, edo laneko segurtasun- eta higiene-araudia bete ez delako, ez da bermatuko estalduraren prestazioa.

-ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAREN ESTALDURAK

Erantzukizun zibileko estaldurak 1.500.000 €-ko maximoa du ezbeharreko, eta dagokion peritu-balorazioaren arabera da.

EZBEHAR-KASUETAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a) Istripu-aseguruan (bekadunarena/ikaslearena/parte-hartzailearena).

- Bekadunak, ikasleak edo parte-hartzaileak praktikak edo jarduerak egiten dituen lekuko arduradunaren txostena.
- Zentroko edo jardueraren zuzendariaren txostena.
- Ordaindu beharreko fakturen kopia.



- Kaltetuaren NANaren kopia.
- Enpresaren IFKren kopia, etab., baldin eta kalte-ordainak aseguruari edo osasun-arreta eman duen enpresari, instituzioari, osasun-zentroari eta abarri ordaintzen bazaizkio.
- Istripuaren larritasunaren edo behin betiko ondorioen ziurtagiri medikoa, kalte-ordainak eragiten badituzte.

Hil egingo balitz, aurrekoaz gain:

- Heriotza-ziurtagiria.
- Familia-liburuaren kopia.
- Azken borondateen ziurtagiria; testamentua egin izan balu, haren kopia. Testamenturik ez badago, polizaren baldintza orokorretan eta partikularretan xedatutakoa hartuko da aintzat.
- Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioaren ordainketa-gutuna (azken agiri hori aseguru-etxeak onuradunaren izaera egiaztatzeko ziurtagiria egin ostean izapidetuko da –aurrez adierazitako dokumentazioa egiaztatu eta gero–, eta bertan gehituko da dagokion foru-aldundiak likida dezan).

b) Erantzukizun zibileko aseguruan (hirugarrenei sortutako kalteak).

- Bekadunak, ikasleak edo parte-hartzaileak praktikak edo jarduerak egiten dituen lekuko arduradunaren txostena.
- Bekadunaren, ikaslearen edo parte-hartzailearen txostena, gertatutakoa azaltzen duena.
- Zentroko edo jardueraren zuzendariaren txostena, alde biak egiaztatzeko eta bien bertsioa egiteko.
- Kaltetuaren eta/edo haren lege-ordezkararen erreklamazioa.
- Kaltetuaren NANaren kopia.
- Eskatutako zenbatekoaren banakapena eta fakturak.

OHARRA: IKASLEA, BEKADUNA EDO PARTE-HARTZAILEA ATXIKITA DAGOEN SAILAK JASOKO DU BI POLIZETAN BARNE HARTUTAKO EZBEHARREK ERAGINDAKO DOKUMENTAZIOA.

I. ERANSKINA. KALTE-ORDAINAK

<u>- ISTRIPU-ASEGURUEN KALTE-ORDAINAK</u>		
a) Heriotzagatik		80.000 €
b) Ezintasun iraunkorragatik	ABSOLUTUA	125.000 €
	GUZTIRA	
	PARTZIALA	(Baremoaren arabera)
C) Osasun-arreta (bakarrik istripuetan)		(**) (*) MUGATUA

(*) Prestazio hori 3 urtez emango da gehienez.

() Medikiak eta ospitaleak hautatzeko askatasuna**

- Estaladura-bateraezintasuna: Ezintasun guztiak bateraezinak dira bata bestearekin, hau da, ez dira ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren kapitalak erabateko ezintasun iraunkorraren kapitalekin metatzen, ez eta ezintasun iraunkor partzialaren eta/edo ondorioen kapitalekin ere.

- Heriotza anitzeko estaldura: Istripu baten ondorioz, aseguratua eta haren ohiko bikotekidea hiltzen badira, aseguru-etxeak kalte-ordain gehigarriak ordainduko ditu; berme horretarako kontratatutako kapitalaren berdina. Ordainketa bi gurasoak hil zaizkien umezurtzei egingo zaie, honako egoera hauetan:

- * 18 urtetik beherakoak badira.
- * Edozein lanetarako erabateko ezintasun absolutua badute.

- Baliaezintasun handiagatik prestazioak.

* Aseguratutako etxea edo ibilgailua egokitzeko gastuak, baliaezintasun handiko kasuan, gehienez, 20.000 € (*)

(*) Obra-proiektua eta egindako gastuen faktura aurkeztu eta gero ordainduko da, eta, edonola ere, dagokion administrazioak emandako gehiegizko kaudimenaren maximo gisa.

* Gurpil-aulkia erosteko kapitala ordaintzea baliaezintasun handiko kasuan, gehienez, 20.000 € (*)

(*) Obra-proiektua eta egindako gastuen faktura aurkeztu eta gero ordainduko da, eta, edonola ere, dagokion administrazioak emandako gehiegizko kaudimenaren maximo gisa.



* Etxeko arreta-prestaziorako kapitala ordaintzea baliaezintasun handiko kasuan, gehienez, 20.000 € (*)

Laguntza protesikoa.

Fakturaren kostuaren % 80 ordainduko da, 12.000 € gehienez. Gorputzeko zati baten anputazioagatik, hortzeria galtzeagatik, entzumena galtzeagatik edo polizak estalitako istripu batek eragindako beste edozein protesirengatik izandako gastuak ordaintzeko erabiliko da diru hori.